



Paulo Agirrebaltzategi
EKBko lehendakaria

Euskara 2.001

Euskararen oraingo zirkulua ezin daiteke deskribatu, etorkizuneko bidea seinatu gabe. Horren begirada-marka ez da 2.001. urteko helburua, 2.001. urteko abiaburua baizik. 3. milurtekorara irekia. Bitartean, ordea, 10 urteko bide-urratzea dugu aurrean.

Euskararen ikuspegi panoramiko era ezberdinez bana daiteke; lau alor haue- tan, esate baterako: 1. Euskararekiko jarrera; 2. Euskararen ezagutza; 3. Euskararen erabilera; 4. Euskarazko produkzio eta kontsumo kulturala. Beti euskara berena duten euskal herritarren aldetik begiratuta.

Euskararekiko jarrerak? Herritarren gehiengo handiaren jarrera orokorra euskararen berreskurapenaren aldekoa izan da. Nafarroan orain dela urtebete inguru kaleratu zuten inkestak ere aldeko jarrera agertu zuten. Herritarren iritzia aldatu denik esateko ez dago datu- rik. Baina badaude sektore politikoren batzuk, atzera eragiten hasi direnak: *Uzuen mezu* antieuskaldun erasokorra, Buesa- ren inboluziorako orde- na, alderdi abertzale batzuta- ko ahots amore-emai- leak eta itxipenezkoak... gutxi hori oso larria da. Eta horren aurkako kementa eta beroa herritar gutziok ipini behar dugu, indarrak baturik. Erreakzioa suspertzen ari da. Horra esperantzen leihoa!

Euskararen ezagutza? Eskolaren eta helduen euskalduntzearen bidez, euskaldun askoren euskaraz alfabetzako eta alfabetatu hainbaten lanbideko eus- kara teknikoaz jabetzeko ahaleginari esker, euskararen ezagutza handituz doala zalantzarik ez dago. Baina ezagutzarako eskolarik onena eta naturalena gurasoak eta familia dira: hizkuntzaren transmisio- bide hori sasiak hartuta dau- kagu neurri handi batez.


Euskararen erabilera? Soziolinguistek diotenez, euskararen ezagutza gero

eta handiagoaren arabera, ez da zabaltzen ari horren eguneroko (etxeko, lagun- arteko, laneko) erabilera; okerrago dena, hainbat lekutan 'murrizten' ari da. Hizkuntzaren biziaren eta osasunaren termometroa, berriz, eguneroko erabilera da. Runtu honetan eta hurrengoan dago seguruenik ahalegin politiko eta so- zialaren ildorik nagusia.

Euskarazko produkzio eta kontsumo kulturala? Kulturgintza da hizkun- tzaren erabilera koalfika- tua. Bestalde, euskarazko kulturgintza eta kultur es- kaintza ugariak ekarriko dute euskara ikasteko eta egunero erabiltzeko moti- baziorik bikainenak. Euskarazko kulturgintza han- ditu egin da azken urteotan; baina oso urria da oraindik, eta erdarazko kulturgin- tzaren eta euskarazkoaren arteko desoreka agian gero eta handiagoa da. Erdaraz euskara gutxi izateko arriskua benetako da.

Azken urteotan euska- raren alorrean sutsu ihar- dun duen batek baino gehiagok kementa galdu du, ixaropena ahultzean. Bai- kortasun kritiko baina era- ginkorraren mezu behar dugu eyuskaldunok, herri- tarren konfidantza historio- koa suspertuko duena, eus- kararen berreskurapen osoaren eta normalkuntza- ren helburuak argi jarri eta honietara iristeko helbide 'errealista' berriak ipini.

Besteren artean, erakunde herritarren arteko artikulazio egokia bilatu behar da, orain arteko etsipenak gainditzeko. 2.001. urteari begira eus- kararen momentuari eta etorkizunari buruzko go- goeta eta elkarrizketa za- balak nahitaezkoak ditugu. Bide horixe heldu dio EKBk, beste hainbat lagun- nek in batera. «Hausnarketa hori bideratzeko inizatiba hartu nahi du EKBk, ezta- baida kolektiboa, hau da, indar sozial gutzien arteko hausnarketa sakon eta pu- blikoa bultzatuz», dio az- ken egunetako gutun batek.



gun euskarak bizi duen egoera azterterakoan, bi bidezidor desber- dinetatik dabilela da atera daite- keen lehenengo ondorioa. Alde ba- tetik, gure hizkuntzaren berresku- rapen eta normalkuntzarako inoiz baino baliabide gehiago daude, baina bestalde euskarak heriotza hain hurbiletik inoiz ez duela ikusi frogatzen duten datuak ugariak di- ra.

Ildo horretatik, aipatzekoa da Euskal Herriko biztanleriaren lau- dena (% 25,47) besterik ez dela osoki euskalduna, hau da, egune- roko bizitza inolako arazorik gabe euskaraz egiteko zailtasunik ez duena. Euskal herritar erdia

baino gehiago (% 55,23) erdalduna da, az djuka euskararen inolako ezagupenik, alergia. Tartean geldit- zen direnek, biztanleri osoaren % 19,3k gutxi gorabehera, badakite ezagupen maila desberdinetan, baina ez bizimodua euskaraz egi- teko adina.

Datu horiek gainera, ez dira era- bat berdinak Euskal Herriko herri- alde eta eskualde gutzitan. Aip- atzekoa da, esaterako, Nafarroako hamar biztanleretik zortzik euska- raz ezer ez dakitela, eta gelditzen diren biak, hizkuntza hori mpen- ratzen dutenen eta zertxobait daki- tenen artean banatzen dira. Gainera, herrialde horretan, eta

Euskarak egun inoiz baino baliabide gehi- ago dituen arren, inoiz ez du hain hurbiletik ikusi heriotza. Ordez- katze prozesua mar- txan dagoela adieraz- ten duten puntu ugari daude.

Euskararen Lege Foralaren arabera 'Eremu ez euskalduna' izendatu duten esparruan, bi urtetik gorako hiritarren % 0,72k besterik ez du mpenratzen, eta aldiz % 97,92k deus ere ez daki.

Euskal Autonomi Elkarte- an, biztanleriaren % 24,66 euskaldun osoa da, eta erdaldunak, berriz, % 57,86 dira. Baina eremu horretako datuak ere ezin dira parekatu, EAE osatzen duten hiru probintziako datuekin. Horrela, Araban % 76,35 erdaldunak dira, aldiz Gipuzkoan kopuru hori, % 39,27koa besterik ez da. Bizkaia, berriz, bien arteko tartea beteko luke. Harrigarria gerta badaiteke ere,